

Joseba Azkarraga Etxagibel

Abadiño, 1972. Soziologian doktorea da eta pentsamendu psikoanalitikoaren jarraitzailea. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean (Eskoriatza) dihardu irakasle. *Berandu baino lehen. Erretratuak XXI. mendeari liburua* (Alberdania) kaleratu berri du. Azken bost urteetako gogoetak bildu ditu. “Gatxa” egin ei zaio gogoetok hedabideetako parametroen arabera adieraztea. Kasuon ez da bere “gabezia”, gabeziarik izatekotan, kazetari honena.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Berrikuntzaren apologia bizi dugu»

Joseba Azkarraga Etxagibel saioei dioenez “egungo ordena sozial hegemonikoa, Berlingo Harresiaren erortzearekin garaile atera zen hura, krisi sistemikoak jota dago”. Ordena honek ez du kontzeptu argirik eta formulazio baliagarriarik XXI. mendeko dilemei aurre egiteko. Zentzu honetan, amets eraldatzailearen krisiaz eta iraultzaren paradigmaren gainbeheraz berba larregi egin dugu.

Zeri erantzun nahi dio *Berandu baino lehen* liburuak?

Nire saioen tonua eta forma, akademikoagoak izan dira orain arte, hau askatasun gehiagorik idatzi dut. Eguneroko pasarteak txertatu ditut, niri edo lagunei gertatuak. Liburua kontu handiei zein txikiei ateratako erretratuak osatuta dago, bineta moduko

batetik abiatuz irakurketa soziologikoak eskaini ditut. Zientzia soziala dago, baina gaiak publiko zabalaren eskura errotan saiatu naiz.

Gai mardulak landu dituzu: krisi soziopolitiko-ekonomikoa, klimatologikoa, psikologikoa, energetikoa...

Ikuspegi panoramiko bat eskaintzen saiatu naiz. Esaterako, krisi energetikoak zer pentsatua eman beharko liguke euskaldunoi. Burujabetzaz hain kezkatutik bizi den herri honek krisi energetikoaren gaian ardura gehiago ez izatea oso kezagarria da. Gure baliabide energetiko guztien %95a inportatzen dugu, gure etorkizuna determinatuko duen datu itzela da. Aro post-fosilistarako prestatzen hasi beharko genuke berandu baino lehen.

Berandu baino lehen izenburuak larritasuna adierazten du. Tonu apokaliptikoa hedatzeaz kritika zaitzakete.

Inondik inora. Liburuan espreski diot urruti nagoela “guztia kontrolpean dago” dioten moderno teknofilotik eta “guztia galduta dago” dioten fatalistatik. *Berandu baino lehen* goiburua adierazi nahi du erabaki garrantzizkoak hartzeko urte gutxi dugula aurretik, eta gaur hartzen ditugun zein hartzen ez ditugun erabakiek etorkizunean inpaktu handia edukiko dutela. Auto azpian bomba bat itsatsita daroan zibilizazioa da gurea, eta kilometroak eta kilometroak egiten ari gara. Baina horrek ez du esan nahi bomba ezin denik desaktibatu. Apokalipsia desmobilizatzailea da, ihes egin beharko genioke. “Errealismo kezkatia”



“Eszenatoki historikoa asko aldatu da. Testuinguru kultural eta moral homogenoago batetik gatz eta berau ikaragarri aldatu da”.

da hondoan dagoen jarrera, hondamendia saihestu aldera berau posible dela onartzetik datorrena. Arduraz jokatzeko ezinbestekoa da honezkero.

Literatur baliabideak erabili dituzu.

Konplexutasuna hitz bakanetara ekartzearen hautua egin dut, eta testua literatur baliabidez busti. Gauza konplexuak modu eskuragarriagoan esatearen artea interesatzen zait, pentsamendua demokratizatu aldera. Urduri jartzen naute ezkerreko pentsalari hiper-kriptikoaren semantika eta egitura testual ulertezinek. Jarrera aurrerakoiak eta norberaren produkzioak kontsonantzia egon behar dute, sinplekerian jausi gabe, noski.

Diskurtsoa politizatu beharraz ari zara Nolabait. Adibidez: minbizia da gaur egun nozitzen dugun arazoetako bat. Seguruenera hainbat faktore dira gaitz petral horren azpian, nondik datorren ez dakigu zehatz-mehatz. Gure amamarentzat hala-behar jainkotiarra da ziurrenera. Modernitateak eman dion azalpen ereduak beste bat da: epidemiologia soziopolitikoagoa da, polisaren antolaketari loturikoa; bizi estiloak, garapen hiperteknologikoak eta modernitateak erditu duten bizimoduaren ondorioa. Orain, berriz, postmodernitateak beste azalpen ildo batzuk mamitu ditu, nitasunarekin lotura dutenak, “ni” horiek bizi duten istripu emozionalekin. Nitasun hori izango litzateke errea-

litatea sozialaren ekoizle nagusietakoa. Historiak determinatu ditu orain arte gure bizierak. Gure psikeak determinatzen dituela sinestera heldu gara ondoren. Gaixotasunek badute jatorri psikosomatikoa, duda barik, baina arriskua dago Bourdieuk “ilusio biografiko” deitzen horretan erortzeko

Noraezean gabilitza, antza.

Arazo sozialak arazo intrapsikiko bihurtzen ari gara. Behiala espazio publiko-politikoan kokatzen ziren hainbat gertakari —baita hauen azalpena— gero eta gehiago espazio pribatu-indibidualean kokatu ditugu. Kontraesan sistemikoak norbanakoaren ardura dira. Gizakiok fenomeno askoren internazionalizazioaren eta internalizazioaren artean bizi gara. Mundua interpretatzeko beste modu bat jalgi da. Pentsamenduaren despolitizazioa eta esperientziaren pribatizazioa dago horren atzean. Euskal Herrian ere nabarmena da azken urteotan bizi dugun bizitzaren pribatizazioa. Euskararen normalizazioan, demagun, hiztun indibidualaren asertibitatea bihurtu dugu etorkizuneko ardatz nagusi. Hori garrantzitsua da, baina arriskutsua litzateke hizkuntza politika soilik hor ardaztea, gutxiago hitz eginez Txepetx hiztun-komunitateaz, edo ahaztuz euskarak ez duela segurtasun juridiko-instituzional berbera —euskara jakitea ez da derrigorra euskararen herrian—.

Zenbat du munduak soziologiatik eta zenbat psikoanalisitik?

Diziplina bakoitzak ikuspegi bat eskaintzen du. Soziologiak paisaia marrazten dizu: paisaia soziala eta historikoa. Psikoanalisiak, berriz, norbanakoaren bidaia biografikoa, bere barrunbe intimoak. Norbanakoa ezin da ulertu paisaia historiko-soziala ulertu barik. Paisaiarik gabeko bidaia, zuringo gabeko arrautza da. Eta, era berean, ezin da paisaia historiko-soziala ulertu bidaia biografikoak aztertu gabe. XXI. mendeko gizarte hau ulertzeko, bi diziplina horien bidegurutzea oso emankorra zait.

“Bizitza zelan bizi” planteatu duzu liburuan. Eslogan polita.

Zein da bizitza ona? Milaka urteetako tradizio kultural eta espiritual guztiek muinean izan duten galdera da. Mundu hiperteknologizatu honek —galderon aurrean— jendea despistatuarazi du. Liburuan aldarri hau egiten da: “Gelditu apur batez eta, ikuspegi indibidual zein kolektibotik, analizatu ezazu zein den bizitzea merezi duen bizitza”. Hazkundera etengabeko dileman murgildu gaituen “zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto” delakoa, erantzun egokia ote da? Ez dut uste. Bestetik, etengabeko aldaketak gertatzen ari diren honetan, norbanakoei gainegokitzapen moduko bat eskatzen zaigu, egoera berrietara egokitu behar izatea etengabe. Berrikuntzaaren apologia bizi dugu. Norbanako zein kolektibo moduan deliberatzea dagokigu, erabakitzea dagokigu gertatzen ari diren aldaketetatik zein diren merezi dutenak eta zein ez. Egokitzapenaren inperatiboari autodeterminazio pertsonal eta kolektiboa gehitzea. Deliberazio demokratikoa funtsezkoa da etorkizuna eraikitzeko.

Badugu zer gaitutua gizabanakook...

Egungo arazo handiena diskurtsoaren eta ekintzaaren arteko leizea da. Gai askori buruz jakinduria asko pilatu dugu. Adibidez, aldaketa klimatikoaz datu asko dugu dagoeneko, baina bidaide izatetik gogaide izatera pasatzeko falta zaigu. Gai batzuekiko ukipena landu dugu, baina hunkipena falta zaigu. Etorkizuneko desafioa horretan datza. Honezkero ez da nahikoa esatea

“garapen eredu honekin ez goaz inora”. Hori aspalditik dakigu. Arazoa da hori guztia nola bihurtzen dugun portaera eta biziera, norbako eta gizarte gisa.

Hazkuntzaren mugak liburua hizpide hartu duzu zurean. *Baby boomaren* urtekoa zara: 1972koa, Abadiñon jaioa. Horrek guztiak gaiak lantzeko bestelako ikuspegi bat eskaini al dizu?

Euskal herritarra izateak –Abadiño-koa edo beste leku bateko izatea ez da ere gauza bera– kokapen berezia eman dit, baita gizartearen analizatzeko aukera berezia ere. Neronek hiru taupada biografiko daramatzat: bat, aurremoderno. Gurasoak baserritarrak dauzkat. Mundu mental, sozial eta sinboliko hori gertuko dut. Bi, taupada moderno kaletarra. Nire imajinarioa mundu modernoaren gogo eraldatzaileari lotuta eratu da. Moderniari lotzen zaion etorkizuna humanizatzeko gogo intimoa daramat. Hiru, taupada posmoderno neurea dut: iraultzaren paradigmen eta dispositibo ideologiko mesianikoen gainbeherak bizi izan ditugu. *Topos* hau ez da paristar edo San Pauloko batena, ezta ere Boliviako indigena batena. Espazio sozial bakoitzak begiratu bat ematen digu. XXI. mendeko euskal herritarra izateak perspektiba oso interesgarria damaigu.

Bizi dugun egoeraz jabetu al dira azken belaunaldiak?

Hazkunde ekonomikoa hemendik aurrera ezin dela utopia izan badakigu belaunaldi berriok, jakitetik jakitera aldea badago ere. Areago, hazkunde ekonomikoa eta hobetze

materiala nolabaiteko utopia izan zen aurreko belaunaldientzat, eskasitak ateratzen behar baitzen, baina gaur arrisku iturburu galanta da. Gainera, ohartu gara hazkunde ekonomikoaren eta bizipozaren marrak, grafiko batean biak marraztuz gero, une batean aldentzen direla elkarrengandik: puntu batetik aurrera hobetze materialak ez dakar ongizate subjektibo handiagoa. Gure belaunaldiak badaki kontsumismoa dela sekula sortu den suntsipen masiboko armarik kaltegarriena. Zentzu horretan, gu dilema berrien eramaileak gara.

“Gai batzuekiko ukipena landu dugu, baina hunkipena falta zaigu. Etorkizuneko desafioa horretan datza”

Nora joan nahi dugun jakiteko, nondik gatozen ikastea ezinbestekoa dugu.

Eszenatoki historikoa asko aldatu da. Testuinguru kultural eta moral homogenoago batetik gatoz eta berau ikaragarri aldatu da. Egungoa askoz polizentrikoagoa da, eta anitzagoa aldi berean. Erlatibismo moralak agintzen duen eszenatoki batera pasa gara. Gure portaera finkatzeko eta gure bizitza orientatzeko ez daukagu mapa bakarra. Menu zabala dugu aukeran. Gure existentzia testuinguru historiko honetan antolatu behar izateak zalantza eta antsietatea sortzen dizkigu. Horiek aro honen berezko elementu bihurtu dira. Aukeratu ahal izatearen ede-

rrari, aukeratu behar izatearen zama. Azken honek tentsio eta higatze psikiko-emozional handia sor dezake norbanakoengan.

Nitasunari hainbat atal eskaini diozu.

Bai. Esaterako, kontsumismoak zein nitasun eredutan hartzen duen oin. Gure estruktura psikikoak bi langa dauzka, behean “naizena” dago, eta goian “izan nahi nukeena”. Bi marren arteko aldea zenbat eta laburragoa izan, orduan eta zoriontsuago biziko naiz. Gizaki modernoak goiko langa hori inoiz baino gorago eraman du, areago gizaki hipermodernoak. Polisaren antolamenduaren arazoa da hein batean, subjektibitate oro produktu historiko eta soziala delako. Goiko langa hori produktu sozial-historikoa da hein handi batean, norbanakoak ez du autogenezis ezarri. Goiko langatik behekoa ikusiz gero, “desegokia naiz” sentimendua sortzen da. Lotsa, alegia. Nahi genuke beheko langa horretatik saltoak eman eta goiko langara heldu. Liburuan defendatzen dudana tesiak dio goiko langa horiek merkatu ekonomiak, publizitatearen artearen bidez, gure baitan instalatu dituen frankizia psikikoak direla. Publizitate bidez, barru arrakalatua, norbanako zauritua, ez nahikoa, lotsatua, sortzeko makinaria perfektua da egungo sistema. Eta sistema honek sortzen duen sufrimendu psikikoak plusbalia ikaragarriak ematen dizkie batzuei. Beheko marra kuestionatu beharrean, goikoa leherrarazi behar genuke. Gure psikismoa merkatu-ekonomiatik gero eta aldenduago egon, orduan eta handiagoa izango da barruko bakea. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea